

"eTOURkizunekoak, fuTOURibles" 2024 BIDEO LEHIAKETA

OINARRIAK

Epea:

2024ko uztailaren 15eko 10:00etatik, urriaren 6ko 14:00etara.

Nork har dezake parte?

16-30 urte bitartekoak diren eta Euskadiko Irakurketa Sareko irakurle-txartela duten guztiak. Parte-hartzaile bakoitzak gehienez 3 bideo aurkeztu ahal izango ditu. Bideo bakoitzak gehienez 2 minutuko iraupena izango du (120 segundo), kreditu-izenburuak barne. Haietan ez da datu pertsonalik jasoko, eta bai, ordea, bideoari emandako izena (izenburua). Ez da onartuko iraupen hori gainditzen duen bideorik

Gaia:

Sestaoko Industria Ondarea eta etorkizunean izan litzakeen erabilerak. "eTOURkizunekoak-fuTOURibles: hondamendi edo ondare" lelopean, Sestaoko Industria Ondarean eginiko ibilbidetik abiatuta, bideo bat sortu beharko duzu, ibilbide hori etorkizunean nolakoa izan litekeen eta izan litzakeen erabilera anitzak irudikatzeko.

Bideoaren ezaugarri teknikoak:

- Formatua: . mp4
- Bereizmena. 1280 x 720
- Codec: H264 (edo antzekoa)
- FrameRate: 25 fps
- Audioa: PCM Sterero 48 khz 16 bits

Non eta nola aurkeztu bideoak:

Izen-emateak liburutegiak@sestao.eus helbidera bidali beharko dira, gaian "eTOURkizunekoak-bideolehiaketa-2024" adierazita. Izen-ematea jaso ondoren, parte-hartzaile bakoitzari esteka bat emango zaio, eta haren bidez, bere obra igotzeko beharrezko jarraibideak jasoko ditu. Estekaren bidez, derrigorrezkoa ez den doako prestakuntza osagarria ere jasotzeko aukera izango duzu.

Betekizunak.

- Parte-hartzaileek izena emateko inprimakia bete beharko dute (I. Eranskina).
- Parte-hartzaileek 18 urte baino gutxiago dituztenean, gurasoek eta tutoreek baimen-agiria bete beharko dute (II. Eranskina).
- Bideoetan ezin izango da datu pertsonalik sartu. Bideoaren egiletzaren ordez, bideoaren izena sartu eta argitaratuko da; hala ere, bideoa saritua bada, egilearen izen-abizenak udalaren webgunean argitaratuko dira.

- Bideoak ez du audiorik behar; hala ere, egileak audioa sartzen badu, euskaraz egin beharko du, eta oinarri hauen III. eranskin gisa erantsi den onespren-dokumentua bete beharko du. Euskarak ez du zertan batua izan, eta euskalkiak ere erabil daitezke. Gainera, beste hizkuntza batzuetan azpigituluak jarri ahal izango dira.
- Bideoak argitaragabeak, eta egileak berak sortuak izango dira. Ez da kopiarik onartuko, ezta beste lehiaketa batean aurkeztu edo saritu den bideorik ere.
- Aurkeztutako bideoekin ezin izango da beste lehiaketa batean parte hartu.
- Ez da lan iraingarririk onartuko, ez eta diskriminazioaren aldeko edo ordena publikoaren aurkako konnotaziorik duenik ere.
- Ezin izango dira hirugarrenen jabetza intelektualeko eskubideak urratu.
- Lanetan ez da oinezkoen edo pertsonen irudirik agertu behar. Baldintza hori betetzen ez bada, lanak ez dira onartuko, eta parte-hartzaileak izango dira erantzule, betiere, hirugarrenen irudi-, datu-babes-, ohore- eta intimitate-eskubideen urraketaekin zerikusia duen edozein erreklamazioren aurrean.
- Bideoetan ezin izango da publizitaterik sartu.

Ez dira onartuko:

Aurreko oinarrian zehaztutako eskakizunak ez betetzearen ondorioz, ez dira onartuko:

- 16 urtetik beherakoek eta 30 urtetik gorakoek aurkeztutako bideoak.
- Euskadiko Irakurketa Sareko irakurle-txartela ez dutenek aurkeztutako bideoak.
- Parte-hartzaile bakoitzeko 3 bideo baino gehiago, eta 2 minututik (120 segundo) gorako iraupena duten bideoak, kreditu-izenburuak barne.
- Parte-hartzaileen izen-abizenei buruzko datu pertsonalak eta/edo oinezkoen edo pertsonen irudiak dituzten bideoak.

Prestakuntza:

Parte-hartzaile bakoitzari, izena eman ondoren, esteka bat emango zaio, eta, horren bidez, nahitaezkoa ez den prestakuntza osagarria jaso ahal izango du.

1. Sestaoko egungo industria-ondarea eta industria-ondarearen erabilerak eta adibideak munduko beste leku batzuetan. 2 ordu
2. Edizioko eta postprodukzioko ikus-entzunezko prestakuntza teknikoa. 6 ordu.

Epaimahaiaren osaera:

- Sestaoko Udaleko Euskara, Gazteria eta Kiroleko zinegotzia
- Sestaoko Udaleko Kultura, Memoria Historiko eta Herritarren Partaidetzako zinegotzia

- Sestaoko Udalaren Kultura, Gazteria, Hezkuntza, Kultura, Euskara eta Kirol Saileko Ataleko Burua.
- Sestaoko Gazteguneko arduradunak
- Sestaoko Udaleko Gizarte-Kultur animatzailea
- Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederretako Fakultateko irakaslea

Sariak:

Hautatutako obren egileei sarituak izan direla jakinaraziko zaie. Sari-banaketa eta hautatutako lanen proiektioaren jakinarazpena interesdunei helaraziko zaie, eta Sestaoko Udalaren webgunean argitaratuko da. Sariak abenduaren 20an banatuko dira.

- 1.a- 1. Saria: 500 euroko bonua teknologia eta liburuetarako
- 2.a- 2. Saria: 350 euroko bonua teknologia eta liburuetarako
- 3.a- 3. saria 200 euroko bonua teknologia eta liburuetarako
- 4.a- Publikoaren Sari Berezia, 150 euroko bonua teknologia eta liburuetarako.

"Publikoaren Sari Berezia" esleitzeko bideoak lortutako "Atsegin dut" kopurua zenbatuko da, betiere epaimahaiak saritutako bideoetako bat ez bada.

Bideoei Sestaoko Udalaren You Tube kanalean emango zaie botoa, Sestao Udala – Ayuntamiento – YouTube helbidean.

Herri-bozketak urriaren 18tik azaroaren 18ra iraungo du, biak barne.

Oinarrien onarpena:

- Lehiaketa honetan parte hartzeak lehiaketaren oinarriak osorik onartzea dakar.
- Antolatzaileek eskubidea dute oinarrietan aurreikusi gabeko edozein egoera ebazteko.
- Epaimahaiaren erabakia apelaezina da, eta sariren bat edo guztiak eman gabe utz ditzake.
- Inola ere ez zaio sari bat baino gehiago emango pertsona berari.
- Aurkeztutako bideo guztiak Sestaoko Udalaren esku geratuko dira, eta, egoki iritziz gero eta betiere egilearen izena agertzen bada, argitaratzeko eskubidea izango du, salbu eta egileak aurka egiteko eskubidea baliatu badu; kasu horretan, Udalak izenik adierazi gabe argitaratu ahal izango du, eta, horren orde, "*eTOURkizunekoak, fuTOURibles 2024*, bideo-lehiaketan aurkeztutako bideoa" jarriko du.

Datuen babesa:

Tratamenduaren arduraduna.

Bideo-lehiaketa hau egitean jasotzen diren datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna Sestaoko Udala izango da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren

27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan eta Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritako manuak betez.

Tratamenduaren helburua.

Tratamenduaren helburua da parte-hartzaileek Sestaoko Ondare Industrialari eta haren etorkizuneko erabilerei buruz duten ikuspegia jasotzea eta ideiarik onenak saritzea.

Tratamenduaren legitimazioa eta oinarri juridikoak

Lehiaketaren oinarrietako datu pertsonalen tratamendurako Udalak dituen botere publikoak ondoko araudian oinarritzen dira: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea. Ahotsaren tratamendua, berriz, interesdunaren baimen aske, espezifikoa eta zalantzarikgabeak legitimatzen du.

Publizitatea

Sestaoko Udalak, saritutako lanak aukeratu ondoren, bere webgunean argitaratuko du sarituan berri.

Erabaki automatizatua.

Ez dago.

Datuen jatorria.

Datu pertsonalak interesdunak emango ditu, eta, hala badagokio, haren legezko ordezkariak.

Datuen hartzaileak

- YouTubeko erabiltzaileak.
- Udalaren web orriaren erabiltzaileak

Datuen babesaren arloko eskubideak eta erreklamazio-bideak

Interesdunak datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko, eramateko eta mugatzeko eskubideak baliatu ahal izango ditu Sestaoko Udalaren aurrean, helbide honetan:

- Udaletxeko Erregistroa
Kasko Plaza, z/g
48.910 Sestao (Bizkaia).
- Egoitza elektronikoa, "datuak babesteko eskubideak erabili" udal-izapidea.
- Edo Administrazio Publikoen erregistroen arloko Laguntza Bulegoen sarean.

Era berean, erreklamazioa aurkeztu ahal izango da Datuak Babesteko Euskal Bulegoan.

- Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71, 3,
01008 Vitoria-Gasteiz (Araba)
- Edo "bitarteko elektronikoen" bidez: <https://www.avpd.euskadi.eus/eskabideak-idazkiak-edo-komunikazioak-bitarteko-elektronikoen-bidez-aurkeztea/webavpd00-content/eu/>

Tratatutako datu pertsonalak

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean ezarritako eskumenak erabiliz, eta lehiaketan parte hartzen duten bideoak saritzeko helburuarekin, Sestaoko Udalak jasotako datu hauek tratatu ahal izango ditu:

<input checked="" type="checkbox"/>	Oinarrizko datuak: Izena, abizenak eta adina.
<input checked="" type="checkbox"/>	Identifikazio-datuak: Euskadiko Irakurketa Sareko irakurle-zenbakia.
<input checked="" type="checkbox"/>	Harremanetarako datuak: Telefonoa eta posta elektronikoa.
<input checked="" type="checkbox"/>	Ordezkaritza-datuak: Gurasoen eta/edo tutoreen izen-abizenak eta NAN/AIZ agiria.

I. ERANSKINA
"eTOURkizunekoak, fuTOURibles" 2024 BIDEO LEHIAKETAKO " IZEN EMATEA

Nik, _____ k, (Irakurle-txartelaren-zenbakia: _____, telefonoa: _____ jakinarazpenetarako helbide elektronikoa elektronikoa: _____) honako hau adierazten dut:

- Sestaoko Udalaren eTOURkizuekoak/fuTOURibles 2024 lehiaketara aurkeztutako obraren egilea eta, beraz, hari dagozkion eskubideen titular bakarra naizela
- Aurkeztutako lana originala eta argitaragabea dela, eta ez dela beste lehiaketa batean saritua edo oraindik erabaki gabe dagoen sariketa batean aurkeztua izan.
- Sestaoko Udalari lagatzen dizkiodala aurkeztutako irudien eskubideak, lehiaketa arautzen duten oinarrietan adierazitako moduan.
- Oinarriak onartu, eta bete egingo ditudala.

DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA

Tratamenduaren arduraduna	Sestaoko Udala Kasko Plaza, z/g 48910 Sestao (Bizkaia). www.sestao.eus
Helburua	Sestaoko Ondare Industrialari eta haren etorkizuneko erabilerei buruz parte-hartzaileek duten ikuspegia jasotzea eta ideiarik onenak saritzea.
Lehiaketaren oinarri juridikoa	Arduradunari emandako botere publikoen erabilera, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean araututako eskumenen arabera.
Ahots-datuen tratamenduaren oinarri juridikoa	Dokumentu hau sinatzeak dakarren baimen askea, espezifikoa, informatua eta zalantzarik gabea.
Hartzaileak	<ul style="list-style-type: none">• YouTuberen erabiltzaileak.• Udalaren webgunearen erabiltzaileak
Publizitatea	Saritutako parte-hartzaileen datu pertsonalak udalaren webgunean argitaratuko dira.
Interesdunen eskubideak	Zure datuen titularra zaren aldetik, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko, tratamendua mugatzeko eta adostasuna ezeztatzeko eskubidea erabil dezakezu Sestaoko Udaleko Erregistroan (Kasko plaza z/g, 48.910 Sestao, Bizkaia), Udalaren egoitza elektronikoa, "datuak babesteko eskubideak erabili" izapidean (https://www.sestao.eus/eu-ES/izapideak/Oriak/procedimiento-detalle.aspx?id=593bdec5-c9ac-e211-b9d8-00237d32158c), edo Administrazio Publikoen erregistroen arloko Laguntza Bulegoetan. Era berean, erreklamazioa aurkeztu ahal izango duzu Datuak Babesteko Euskal Bulegoan (Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71, 3, 01008 Vitoria-Gasteiz, Araba) , edo erreklamazio bat aurkeztu ahal izango du "bitarteko elektronikoen" bidez (https://www.avpd.euskadi.eus/eskabideak-idazkiak-edo-komunikazioak-bitarteko-elektronikoen-bidez-aurkeztea/webavpd00-content/eu/).

Data:/...../.....

Sinadura:

II. ERANSKINA. GURASOEN ETA/EDO TUTOREEN BAIMENA

_____, _____ (NAN/AIZ/Pasaporte _____ eta _____), _____ adingabearen guraso-ahalaren edo tutoretzaren titularrak izanik (irakurle-txartelaren zenbakia: _____; telefono-zenbakia: _____; helbide elektronikoa: _____), honako hau adierazten dugu:

- Onartzen dugu gure seme-alabak edo tutoretzapekoak bere bideoa "eTOURkizunekoak, fuTOURibles" 2024 lehiaketan aurkeztea.
- Onartzen dugu gure seme-alabak edo tutoretzapekoak aurkeztu behar duen bideoaren irudi-eskubideak lagatzea, erea berean onartzen ditugun Lehiaketaren Oinarri Arautzaileetan adierazitako baldintzetan.
- Onartzen dugu gure seme-alabak edo tutoretzapekoak beren ahotsa bideoan txertatzea.

DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA

Tratamenduaren arduraduna	Sestaoko Udala Kasko Plaza, z/g 48910 Sestao (Bizkaia). www.sestao.eus
Helburua	Sestaoko Ondare Industrialari eta haren etorkizuneko erabilerei buruz parte-hartzaileek duten ikuspegia jasotzea eta ideiarik onenak saritzea
Lehiaketaren oinarri juridikoa	Arduradunari emandako botere publikoen erabilera, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean araututako eskumenen arabera.
Adingabearen ahots-datuen tratamenduaren eta inskripzioaren oinarri juridikoa	Dokumentu hau sinatzeak dakarren baimen askea, espezifikoa, informatua eta zalantzarik gabea.
Hartzaileak	<ul style="list-style-type: none">• YouTuberen erabiltzaileak.• Udalaren webgunearen erabiltzaileak
Publizitatea	Saritutako parte-hartzaileen datu pertsonalak udalaren webgunean argitaratuko dira.
Interesdunen eskubideak	Zure datuen titularra zaren aldetik, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko, tratamendua mugatzeko eta adostasuna ezeztatzeko eskubidea erabil dezakezu Sestaoko Udaleko Erregistroan (Kasko plaza z/g, 48.910 Sestao, Bizkaia), Udalaren egoitza elektronikoa, "datuak babesteko eskubideak erabili" izapidean (https://www.sestao.eus/eu-ES/lzapideak/Oriak/procedimiento-detalle.aspx?id=593bdec5-c9ac-e211-b9d8-00237d32158c), edo Administrazio Publikoen erregistroen arloko Laguntza Bulegoetan. Era berean, erreklamazioa aurkeztu ahal izango duzu Datuak Babesteko Euskal Bulegoan (Tomas Zumarraga Dohatsuairen kalea 71, 3, 01008 Vitoria-Gasteiz, Araba), edo erreklamazio bat aurkeztu ahal izango du "bitarteko elektronikoen" bidez (https://www.avpd.euskadi.eus/eskabideak-idazkiak-edo-komunikazioak-bitarteko-elektronikoen-bidez-aurkeztea/webavpd00-content/eu/).

Data:/...../.....

Sinadura:

III. ERANSKINA. AHOTS-DATUAK TRATATZEKO BAIMENA

Nik, _____ k, (Irakurle-txartelaren-zenbakia: _____
, telefonoa: _____ jakinarazpenetarako helbide elektronikoa elektronikoa: _____) honako hau
adierazten dut:

Onartzen dut bideoan sartutako datuak tratatzea, jakitun izanik YouTuben argitaratuko dela, "Publikoaren Sari Berezia" aukeratzeko bozketa egiteko.

DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA

Tratamenduaren arduraduna	Sestaoko Udala Kasko Plaza, z/g 48.910 Sestao (Bizkaia) www.sestao.eus
Helburua	Sestaoko Ondare Industrialari eta haren etorkizuneko erabilerei buruz parte-hartzaileek duten ikuspegia jasotzea eta ideiarik onenak saritzea.
Lehiaketaren oinarri juridikoa	Arduradunari emandako botere publikoen erabilera, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean araututako eskumenen arabera.
Ahots-datuen tratamenduaren oinarri juridikoa	Dokumentu hau sinatzeak dakarren baimen askea, espezifikoa, informatua eta zalantzarik gabea.
Hartzaileak	<ul style="list-style-type: none">• YouTuberen erabiltzaileak.• Udalaren webgunearen erabiltzaileak
Interesdunen eskubideak	Zure datuen titularra zaren aldetik, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko, tratamendua mugatzeko eta adostasuna ezeztatzeko eskubidea baliatu ahal izango duzu honako kasu hauetan: · <ul style="list-style-type: none">• Sestaoko Udaleko Erregistroan. Kasko Plaza, z/g 48.910 Sestao (Bizkaia).• Udalaren egoitza elektronikoa, "datuak babesteko eskubideak erabili" izapidean (https://www.sestao.eus/eu-ES/Izapideak/Orriak/procedimiento-detalle.aspx?id=593bdec5-c9ac-e211-b9d8-00237d32158c)• Edo Administrazio Publikoen erregistroen arloko Laguntza Bulegoen sarea. Era berean, erreklamazioa aurkeztu ahal izango duzu Datuak Babesteko Euskal Bulegoan (Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71, 3, 01008 Vitoria-Gasteiz, Araba) , edo erreklamazio bat aurkeztu ahal izango du "bitarteko elektronikoen" bidez (https://www.avpd.euskadi.eus/eskabideak-idazkiak-edo-komunikazioak-bitarteko-elektronikoen-bidez-aurkeztea/webavpd00-content/eu/).
Publizitatea	Saritutako parte-hartzaileen datu pertsonalak udalaren webgunean argitaratuko dira.

Data:/...../.....

Sinadura: